

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan baditugu baliabide batzuk. Baliabide fisikoen barruan guk jarri dezakegun diru kopurua eta lokala sartzen ditugu. Baliabide intelektualetan, eguzki-plaketan ezagutza duen pertsona bat ezagutzen dugu eta diseinu onak egiten dituen bat ere bai. Finantza-baliabidetan, inbertsoreak eta diru-laguntzak bilatzen saiatuko gara.

Taldekideetako bat diseinuaz arduratuko da eta gure produktuaren logoa egingo du, sare sozialetan abila den taldekide bat ere badugu, bere laguntzaz, bezeroak erakarriko genituzke eta produktuaren informazioa zabalduko genuke, mugikorraz asko dakien taldekide bat ere badaukagu, beraz, gure produktua saltzeko orduan, mugikorrari buruzko aholkuak emateko gai izango litzateke eta beste taldekide bat daukagu, kontabilitateaz arduratuko dena.